

Kaixo, lagun!

Mezu honekin batera adierazi nahi dizuegu **Ulibarri Euskaltegiak** entitate **moduan Euskaraldian parte hartzea erabaki dugula.**

Jakingo duzuen bezala, Euskaraldia ariketa soziala da, herritarren hizkuntza-praktikak aktibatu eta euskararen erabilera handitzeko asmoa duena.

Laugarren edizioa izango da hau eta **2025eko maiatzaren 15etik 25era** egingo da.

Entitate moduan, **euskararen biziberritzean zeresana eta zeregina daukagunez**, guk ere parte hartzeko konpromisoa hartu dugu.

Nola hartuko dugu parte?

- Euskaraldiaren berri emanez.
- Ahobizi eta belarriprest izateko deia eginez.
- Ariketa ondo egiteko prestakuntza-tresnak partekatuz.
- Ariketa ikusaraziz (espazioak apaindu, txapak jantzi...).

Aurrerago, beraz, informazioa zein prestakuntza-motak helaraziko dizkizuegu. Xedea da, elkarrekin Euskaraldian parte hartuz, hizkuntza-ohituretan jauzi bat egin eta euskararen erabilera handitzea.

Aldez aurretik eskerrik asko.

Ondo izan!

